

Liburutegiko ordenagailuak

Erabilera arauak

- Liburutegian bertan erabiltzeko bi ordenagailu eramangarri daude erabiltzaileen eskura
- Erabili ahal izateko ezinbestekoa da liburutegiko bazkide izatea
- Ordenagailuak 14 urtetik gorakoek erabili ahal izango dituzte
- 14 urte bitarteko erabiltzaileak heldu batekin egon beharko dira ordenagailuak erabili ahal izateko
 - DBH1 eta DBH2 mailetako gaztetxoek, aukera izango dute bakarka etorriz gero ere ordenagailuak erabiltzeko, baina, eskolako lanak egiteko soilik. Ez nabigazio librerako
- Ordenagailuak erabiltzeko berauen erabilpenari buruzko oinarrizko jakintza izan beharko da. Gogoratu liburutegiko langileak ez direla informatikariak eta ez daukatela laguntza teknikorik emateko derrigorrik
- Ordenagailu bakoitzean soilik pertsona bat egon daiteke. Bi pertsona egon behar izanez gero liburutegiko arduradunari eskatu beharko zaio baimena
- Saioa 30 minutukoa izango da. Denbora hau luzatu ahal izango da inor zain ez badago
- Lanerako edo informazioa bilatzeko behar duenak izango du ordenagailuak erabiltzeko lehentasuna

- Debekatuta dago eduki homofobo, sexista, arrazista edo pornografikoa duten orrialdeak bisitatzea. Ordenagailuek filtroak izango dituzte ahal den neurrian hori eragozteko
- Erabilpena eskatzen duenak arduratu beharko du ordenagailua zaintzeaz eta behar bezala erabiltzeaz. Ezin izango du manipulatu, ezta kanpoko programarik instalatu ere
- Ordenagailuaren soinua erabiltzeko bakoitzak bere entzungailuak erabili beharko ditu
- Erabilera ukatu ahal izango zaio liburutegiko nahiz ordenagailuetako arauak betetzen ez dituenari eta baita jarrera desegokia daukanari ere.
- Ordenagailuen zerbitzua liburutegiaren itxiera baino 5 minutu lehenago amaituko da

OPAC ordenagailua

- Ordenagailu hau sareko gune zehatz batzuk kontsultatzeko soilik erabili ahal izango da: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko katalogo kolektiboa, bestelako liburutegien katalogoak, liburutegiko site eta sare-sozialak, etab. Liburutegian bertan adierazita egongo dira kontsulta daitezkeen esparruak
- Kasu berezietan, beste ordenagailuek daukaten erabilera bera ematea erabaki dezake liburutegiko arduradunak



Astelehenetik ostegunera 16:30-20:00

Ostiral eta jai bezperetan 14:30-17:30

📞 943788012 📧 📞 688729603

✉️ elgetakoliburutegia@elgeta.eus

🌐 <https://www.liburutegiak.euskadi.eus/elgeta>

📌 <https://t.me/elgetakoliburutegia>